

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Foru Gobernuak Basaburuko eta Imotzeko udaletxeetan Nafarroako banderarik ez egotea aurkatu du

Halaber, Oteitzako Udalari Sinboloen Legea betetzea eskatu dio

Jueves, 10 de octubre de 2013

Nafarroako Gobernuak Basaburuko eta Imotzeko (Etxaleku) udaletxeetako fatxadan Nafarroako banderarik ez egotea aurkatu du administrazioarekiko auzien jurisdikzioan; izan ere, Udalek ez dituzte kontuan hartu Gobernuak egindako eskakizunak.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioaren kontseilariaren foru-aginduak dio, batetik, Polizia Foralaren bi txostenen arabera, 2013ko ekainaren 27an ez zegoela banderarik aipatu udaletxeetan; eta bestetik, Sinboloen Legea betetzea eskatu zitzaizela. Aginduzko 10 eguneko epea igaro ondoren, Polizia Foralak txosten berri bana egin zuen eta, haien arabera, irailaren 25ean ere ez zegoen banderarik aipatu udaletxeetako fatxadetan. Horregatik, Gobernuak aurkapena aurkeztu du epaimahaien aurrean.

Oteitzako Udalari egindako eskakizuna

Foru Gobernuak, orobat, Sinboloen Legea bete dezan eskatu dio Oteitzako Udalari. Izan ere, Polizia Foralaren txosten baten arabera, abuztuaren 21ean, herriko festei hasierako emateko suziria bota zutenean, udaletxeko balkoian ikurrina zeukaten jarrita, bandera ofizialen, hau da, udalerriko, Nafarroako, Espainiako eta Europako banderen ondoan. Txostenak dio, gainera, udaletxeak bandera guztiak kendu zituela arratsalde hartan, eta ordudanik balkoia bere horretan dagoela. Euskal Autonomia Erkidegoko ikurrina jartzea eta Nafarroako banderarik ez egotea Sinboloen Legeko 6. eta 8. artikuluen aurka doanez, Nafarroako Gobernuak egoera hori konpontzea eskatu dio Oteitzako Udalari, eta horretarako hamar egun dauzka.